

## Granada ur azpian.

Granadar itsasoa 3000 metro baino gehiagoko altueran hasten da, Sierra Nevada, eta espainiar ize, sabina eta ipuru artetik pasatzen da.

Gero, eguzkiak eta grabitateak, kostalderantz hurbiltzen dute elurra.

Baso eta lahar artetik pasa ahala, ura aberastuz doa.

Baina ur kontinentalengandik urruti dago itsasoa.

Itsas animaliek, eboluzioan zehar, inguru horretako ezaugarri fisikoei egokitutako forma eta estrategiak garatu dituzte. Anbulakro aparatuari esker, izarrak azkar mugitzen dira itsas hondo hareatsuetan, harrapakin bila.

Bestalde, zeriantoak, bere mugimendu gaitasun eza garro luzeekin orekatzen du. Puntak zelula erresumingarriz estalita ditu, eta arma eraginkorrak dira garroek beraiek sortutako korronteek erakartzen dituzten organismo txikiak harrapatzeko.

Ilargiarrainak baldarra dirudi beti. Egia esan, ez da batere liraina, eta bere gorputz handia dela-eta, animalia handiak amorrusuz irensten dituela dirudi. Baina bere dietaren gehiengoa marmokek osatzen dute, hori bai milaka eta milaka marmoka gelatinakara. Isats hegalik ez duenez bere gorputzak desitxuratua dirudi. Horren orde *clavus* deituriko egitura bat du, uzki eta isats hegaletako erradioen luzapenez sortua. Erradio hauek gorputzaren atzealdean kokatzen dira, oso altu eta aurrez aurre.

Otarraina beti korrika ari dela dirudi, baina benetan, denbora asko pasatzen du gauaren zain, ehizarako une egokiena baita berarentzat. Hau bai harrapari amorratua. Batez ere, poliketo, krustazeo eta molusku bibalbioak ehizatzen ditu. Azken hauen kuskua apurtzeko gai da, beste dekapodo batzuek dituzten hagin eta itxura indartsuak izan ez arren.

Txibia ar hau bere kideei nagusitu behar izan zaie, azkenean emea estaltzeko. Besoak lotzen dituzten bitartean, sabelak arrosa kolorea hartzen du eta bizkaraldeak zebrarena dirudi. Udaberriko aste batzuetan zehar, erritu hori behin eta berriz errepikatuko da. Gero hil egingo dira. Gizakioi amaiera tragikoa iruditzen zaigu, baina egia esan, espezie baten biziraupenerako estrategia eraginkorra besterik ez da.

Koralezko polipoek ere badute berea, komunitate hauen oreka, sotil eta konplexua bezain hauskor eta ahula da.

Granadako itsasoan kolore anitzdun baso mineralak eratzen dituzten gorgoniak ere delikatuak dira. Urak ibilbide amaigabea hasi zuen Sierra Nevada baso berdeen ispilu urrunak.